

## **BAKIOKO UDALEKO ADMINISTRARIEN LAN-POLTSA SORTZEKO OINARRIAK**

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, eta sortutako egoeraren ondorioz emandako araudiek, zenbait neurri hartzea ekarri dute, hala nola pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzea, udalerriko jendeari arreta ematea haien beharrezanean erantzuteko, bai eta jendeari eragiten dioten bestelako neurriak hartu beharra ere.

Konfinamendua, kasu jakin batzuetan, arazo sozialak, ekonomikoak edo komunikaziokoak sortzen ari da herritarren artean, eta, horregatik, Udalak administrazio-kudeaketako lanak egiten dihardu arazo horiek bideratzeko.

Gainera, konfinamendua arintzeko agintariek ezar dezaketen bigarren fasean, posible dateke lurralde barruko jendea bigarren etxebizitzara lekualdatzea, batez ere kostaldeko herrietara, eta horrek Bakioko biztanleria nabarmen handitzea ekarriko du. Horrek, era berean, lan gehiago sortuko du Udalarentzat, osasun-krisiaren egoera kudeatzeko emandako neurriak betetzen ote diren jarraipena egin behar baitu.

Horren guztiaren ondorioz, administrazioko langileen jarduera handitu egin da, eta are gehiago handituko da deseskaladaren bigarren fasea abian jartzearekin. Hori dela eta, gaur egun administrazio-bulegoan dauden giza baliabideak ez dira nahikoak zereginen eguneroko kudeaketari aurre egiteko, are gehiago kontuan hartuta udan premiak askoz gehiago izango direla. Hori dela eta, ezinbestekoa eta premiazkoa da administrazioko udal-bulegoko plantilla aldi baterako indartzea, Udalak zerbitzu hobea eta baldintza hobeagoetan emango duela bermatzeko. Horren arabera, administrazioko langileen plantilla aldi batez betetzeko ezohiko hautaketa-prozedura bat egin behar da.

Esposizio- eta kutsatze-probabilitatea murrizte aldera, agintariek ezarritako edo gomendatutako neurriak daude (besteak beste, pertsonen arteko distantziak mantendu behar izatea pertsonen zirkulazioan mugatzea, etab.), gaur egun indarrean dauden euste-premia sanitarioei erantzun nahi dietenak. Neurri horiek eragotzi egiten dute hautaketa-prozedura horren barruan oposizio-fase bat gauzatu ahal izatea; beraz, aukera bakarra da lan-poltsa osatzeko hautaketa egitea. Beraz, lehiaketa bidez egingo da, oinarri hauen arabera:

### **LEHENA.—*Deialdiaren xedea eta prestazioaren iraupena***

Deialdi honen xedea Bakioko Udalaren lan-poltsa bat osatzea da, Administrazioko lanpostuen berezko aldi baterako premiak behar bezala betetzeko eta udal-arloek zeregin-pilaketagatik une bakoitzean behar dituztenak estaltzeko, COVID-19tik

eratorritako osasun-alarmaren ondorioz, aldi baterako bitarteko funtzionario gisa hornitua izan dadin.

Lan-poltsak urtebete iraungo du, berori onartzen duen udalaren ebazpenetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei honela deituko zaie:

— Bi eguneko epean, gehienez ere, hiru aldiz saiatuko dira telefonoz edo telematikoki komunikatzen. Kontaktatutako poltsan dagoen pertsonak eskaintza onartu edo baztertu beharko du. Aldi berean, hurrengo izangaiekin ere harremanetan jarri beharko da puntuazioaren arabera, eta haien ordezkotza-egoeraren berri emango zaie.

— Interesduna aldi baterako baja-egoerara igaroko da lan-poltsan, baldin eta eskaintzari uko egiten badio, egoera hauetakoren batean badago; dena dela, behar bezala justifikatu beharko du:

- Administrazio Publikoan zerbitzuak ematea.
- Nahitaezko betebeharrak publiko edo pertsonalak betetzea.
- Gaixotasuna edo istripua izatea.
- Amatasun- edo aitatasun-lizentzia.
- Alkatetzak hala erabakita, aurreko ataletan jaso ez den beste edozein arrazoï berezi, behar bezala arrazoituta.

Egoera horretara igarotzea eragin zuen arrazoia amaitu ondoren, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Udalari aldi baterako baja eragin zuen egoera amaitu dela 15 eguneko epean, eta berriz ere lanean jarduteko moduan dagoela ulertuko da.

— Harremanetarako aukerarik izan ez bada, edo izangaiak aldi baterako baja-egoera justifikatzen badu, ez da aldatuko poltsan duen egoera, eta poltsa horretako hurrengo izangaiari deituko zaio.

— Egindako eskaintza justifikaziorik gabe baztertzen dutenek edo hautaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenek behin betiko baja hartuko dute lan-poltsan, eta automatikoki baztertuak izango dira egindako hautaketatik, eta bertan lortutako eskubideak galduko dituzte. Halaber, behin betiko baja emango zaie berariaz hala eskatzen dutenei.

**BIGARRENA.**—*Hautaketa-sistema*

Lehiaketa

**HIRUGARRENA.- Izangaien betekizunak.**

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- b) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- c) Batxilergoko titulu ofiziala edo titulu teknikoa izatea.
- d) Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta izatea.

Agiri bidezko egiaztapena baino ez da onartuko. Hautaketa-prozeduran ez da euskararen ezagutza egiaztatzekeo probarik egingo.

Ez da beharrezkoa izango Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) jasota dauden datuak egiaztatzea, baldin eta baimena ematen bada Bakioko Udalak erregistro horretan datu horiek kontsultatzeko.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota ez dauden titulazioak egiaztatu egin beharko dira eta eskabidean aurkeztu.

e) Gaitasuna: zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Gaitasun psikofisiko zehatza eta gaitasunaren edo desgaitasunaren bateragarritasuna izan beharko ditu, lan-poltsaren konfigurazioaren xede den lanpostuari dagozkion eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko. Ziurtagiri mediko bidez egiaztatuko da hori.

f) Gaikuntza: diziplina-espediente bidez autonomia-erkidegoetako edozein administrazio publikoren edo konstituzio- edo estatutu-erakunderen zerbitzutik bereizi ez izana, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaiakuntza absolutu edo berezirik ez izatea funtzionarioen kidego edo eskaletan sartzeko.

g) Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolana ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako legezko arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharreko baldintza guztiak bete beharko dituzte. Halaber, horiek guztiak eduki beharko dira hautaketa-prozedurak irauten duen bitartean, bitarteko funtzionario izendatzeko unean eta aurrerantzean.

Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan epaimahaiari jakiten bazaio izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

### **LAUGARRENA.—Eskabideak eta onarpena**

Dagokion hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideek, izangaiek deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute; alkatetzari zuzenduko zaizkio eta posta elektronikoz (udala@bakio.org), telematikoki edo posta ziurtatu bidez aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, 2020ko maiatzaren 19tik ekainaren 1era (biak barne). Oinarriak eta deialdia udalaren webgunean argitaratuko dira: [www.bakio.eus](http://www.bakio.eus) webgunean, eta deialdia udaleko iragarki taulan.

Halaber, hautaketa-prozesuan baloratu beharreko merezimenduak jasoko dira, eta merezimendu horien egiaztagiria erantsi beharko dira. Merezimenduak zenbatzeko data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ezin izango dira baloratu alegatutakoez bestelako merezimenduak, ez eta epe horretan epaimahaiak ezarritako epetik kanpo alegatutako merezimenduak ere.

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehaztutako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatetzak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du. Ebazpen hori udalaren webgunean ([www.bakio.eus](http://www.bakio.eus)) argitaratuko da, eta korporazioko ediktu-oholean jarriko da ikusgai.

Zerrendetan baztertuta agertzen diren izangaiek bost eguneko epea izango dute baztertze horren aurkako erreklamazioa egiteko eta hori eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Erreklamazioak aurkezteko epe hori igarotakoan, izangaiek onartzeko eta baztertze ebalazioa onartu duen agintariak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eskabideetan akatsak egonez gero, interesdunari errekerimendua egingo zaio, iragarki baten bidez, udalaren web orrian

([www.bakio.eus](http://www.bakio.eus)) eta Udaleko iragarki-taulan (bertan, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda agertuko da), bost eguneko epean akatsa zuzen dezan. Egiten ez badu, beste izapiderik gabe artxibatuko da eskabidea.

### **BOSGARRENA.-*Epaimahai kalifikatzailea***

Epaimahaia buru batek, idazkari batek eta karrerako funtzionario diren hiru kidek osatuko dute. Osaera teknikoa izango du nagusiki, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du. Beraz, kide guztiek deialdiko lan-poltsan sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hautaketaren xede den plazaren lanbide-arlo edo -sektore berari dagozkion ezagutzak izan beharko dituzte; halaber, egokitasuna justifikatu ezean, bi sexuen kideak izan beharko ditu, gizonen eta emakumeen arteko parekidetasunera joz (5/2015 LEDren 60. artikulua).

Epaimahaiaren osaera udalaren webgunean ([www.bakio.eus](http://www.bakio.eus)) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onartutako izangaien zerrendarekin batera, Alkatetzak izendatu ondoren.

Epaimahaiko edozein kidek ezin izango du esku hartu, eta korporazioburuari jakinarazi beharko dio, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako zirkunstantziaren bat azaltzen bada; halakoetan, edozein hautagaik ezetsi ahal izango ditu, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, betiere aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Alkatetzan, ebazpenean bertan ezarritako epean, iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **SEIGARRENA .- *Lehiaketa fasea***

Izangaiek eskabideak aurkezteko epean behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, honako oinarri hauen arabera, eta ezin izango da beste merezimendurik baloratu. Deialdia argitaratzen den egunera arte hartutakoak baino ez dira baloratuko.



HERRI ADMINISTRAZIOAN ADMINISTRARI GISA EMANDAKO  
ZERBITZUENGATIK

— 0,20 puntu hilabete bakoitzeko, gehienez puntu 1.

Administrazioan esperientzia egiaztatzeko: zerbitzuak eman diren administrazioaren ziurtagiriaren bidez eta kontratuaren iraupenaren bidez.

Inola ere ezin izango dira zenbatu eskabideak aurkezteko epearen amaieraren ondoren egindako zerbitzuak.

Zenbaketari dagokionez, prestazioa lanaldi arrunteko erregimenean eman bada, lan egindako urte oso bakoitza 365 egun izango da, eta lan egindako hilabete oso bakoitza 30 egun. Guztira, lan egindako egun naturalen arabera zenbatuko dira hilabete baino gutxiagoko hondarrak. Ondorio horietarako, 30 egun natural hartuko dira hilabetetzat.

Lanaldi partzialeko edo lanaldi-murrizketako dedikazio-aldiak dauden kasuetan, benetan emandako dedikazio-denboraren proportzioan egingo da zenbaketa, betiere indarrean dagoen araudiak horretarako aukera ematen badu. Murrizketa hori norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak aplikatzearen ondorioz eman bazaio onuradunari, denbora hori lanaldi osokoa balitz bezala zenbatuko zaio.

— INFORMATIKA: 4 puntu (puntu 1 IT bakoitzeko)

IT Txartela hauek edukitzea:

Oinarrizko Microsoft Word-a, edozein bertsio.

Oinarrizko Microsoft Access-a, edozein bertsio.

Oinarrizko Microsoft Excel-a, edozein bertsio.

Microsoft Outlook-a, edozein bertsio.

— Datuen babesari buruz egindako ikastaroa: 3 puntu.

— Lizentziatura edo gradua, administrazio-funtzioekin lotutakoa (eremu ekonomikoa, fiskala, administratiboa, zuzenbidekoa). Puntu 1 diplomatura baten baliokidea den titulazio baterako, eta 2 puntu lizentziatura baten baliokidea den titulazio baterako.

Lehiaketa-fasean gehienez ere 10 puntu lor daitezke.

**ZAZPIGARRENA.- Gaindituen zerrenda, dokumentuen aurkezpena eta izendapenak.**

Merezimenduak baloratzeko faseko kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak behin betiko sailkapen-hurrenkera ezarriko du puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta alkatetzari bidaliko dio zerrenda hori, dagokion lan-poltsa onar dezan eta, beharrezkotzat jotzen denean, izendapen-proposamena egin dezan, bitarteko funtzionario gisa, baldin eta alde zuzenetik aurretik deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute, bai eta eginkizuna normaltasunez betetzeko gai direla egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria ere.

Berdinketarik egonez gero, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4. artikulua ezarritakoaren arabera, emakumezkoari lehentasuna emango zaio, baldin eta Bakioko Udalean duen ordezkaritza %40etik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten eta sexu zioengatik diskriminatzaileak ez diren arrazoiak dituztenean, hala nola, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehenik eta behin merezimenduen atalean adierazitako informatikako titulua duen pertsonaren alde ebatziko da. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasun-hurrenkera zozketa bidez ezarriko da.

Hautaketa-prozesu hau gainditu duten pertsonen zerrendak administrari lanpostuetan aldi baterako zerbitzuak emateko erabili beharreko lan-poltsan sartuko dira.

**ZORTZIGARRENA.- Gorabeherak.**

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira, bi hilabeteko epean, prentsan argitaratzen direnetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiari baimena ematen zaio sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozedura behar bezala egiteko behar diren erabakiak hartzeko.

**BEDERATZIGARRENA.- Baldintza ekonomikoak, lanaldia eta eginkizunak.**

Hasiera batean, Clari dagokion ordainsari-maila izango du, eta lanpostu-mailako osagarria 18koa izango da.

Lanaldia Bakioko Udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta beharrian espezifikoak kontuan hartuta, eta lanaldi osoa edo partziala izan daiteke.

Lanpostuaren berezko zereginak fisikoki udaletxean edo Kultur Etxean egin ahal izango dira.

Eginkizun hauek beteko dira:

**Udaletxean, eginkizun hauek izango ditu:**

Administrazio-unitateari dagozkion datuak, txostenak, proposamenak, espedienteak, askotariko lanak eta abar lortzen eta ematen laguntzea.

Terminal informatikoak, telefonikoak eta telematikoak maneiatzea.

Agintzen zaizkion espedienteen jarraipena egitea eta artxibatzea.

Dokumentuen sarrera-irteeren erregistroa kontrolatzea, eguneroko posta jasotzea, sailkatzea, erregistratzea eta sailei banatzea.

Jendeari arreta emateko zerbitzuko zereginak (HAZ).

Adierazitako helburuak lortzeko eskatzen zaion beste edozein lan egitea, betiere administrazio-zereginekin bat badatoz.

**Kultur Etxean, funtzio hauek egingo ditu:**

Terminal informatikoak eta telefonikoak maneiatzea.

Dibulgazio-lanak: kartelak jartzea, eskuzko banaketak

Ekitaldiak antolatzen laguntzea, bitartekoak prestatzea

Liburutegiko liburuen maileguak kudeatzea

Musika Astean lagundu

Jardueren kudeaketa eta koordinazioa.

Jarduketetarako eta erosketetarako materiala prestatzea

Jaietan lagundu



Adierazitako helburuak lortzeko eskatzen zaion beste edozein lan egitea, kultur arloko zereginekin bat badatoz.

Bakion, 2020ko maiatzaren 18an

Alkatea

Amets Jauregizar Baraiazarra



Eginbidea: oinarri hauek maiatzaren 18ko 145/2020 Alkatetzaren ebazpenaren bidez onartu dira, eta horren fede ematen dut.

Udal idazkaria

Juan Francisco Figuren Cortázar

